

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak helduak euskara ikastera animatu nahi ditu

Helduen euskalduntzeko matrikula epea zabaldu da eskola ofizial eta euskaltegietan

Miércoles, 16 de septiembre de 2015

Eskola ikasturte berriaren hasieran, Nafarroako Gobernuak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez, helduek euskara ikastea sustatu eta ikastaroak eskaintzen dituzten ikastegi hauetako batean izen ematea bultzatu nahi du: [Zubiarte euskaltegi publikoan](#), [Iruñeko](#) zein [Tuterako hizkuntza eskola](#) ofizialetan, bai eta helduen euskalduntzean aritzen diren [IKA](#) eta [AEK](#) gizarte erakundeetako euskaltegietan ere.

Nafarroako Parlamentuak herri ekimeneko euskaltegien lana aintzatetsi zuen joan den urteko urtarrilaren 9an hartutako erabakian, aitortuz euskaltegi horien lanaren bidez azken lau hamarkadetan milaka herritar euskaldundu ahal izan direla.